

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 280. zenbakia. 2019ko uztaila



**Mallabiko
ortuetan,
lana eta aisia**



IRAZABAL

clínica dental

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**en: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
 Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
 Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
 Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
 Diplomaturia Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
 Hartz-Estetikan Diplomaturia.
Madrigo Unibertsitate Konplutentsea.
 Hartz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
 Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
 Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
 tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eskusiboak:

Allianz 
 Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Maialen Alvarez,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Xabier Ciarsolo,
Estibalitz González,
Asier Madarieta,
Valentin Mugarza,
Ander Prol,
Dorleta Vidal
eta Ainhoa Zuazua.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Ume kantua

Anikuni

- Anikuni kahaunani.
- Anikuni kahaunani.
- Uwa! Uwa! Uwa! Nikana kaina.
- Uwa! Uwa! Uwa! Nikana kaina.
- Eaunani bissini.
- Eaunani bissini.
- Anikuni, anikuni, anikuni,
uah!



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Ainhoa Zuazua (Frantzia)	ERREPORTAJEA.....16-17 Urbano Manchobas
ELKARRIZKETA5-7 Asier Madarieta	IRITZIA18 Autogestioak egingo gaitu aske
MALLABIAN ZER?8-10 Ortu ekologikoak	ZORION-AGURRAK19 Saldu, erosi edo agurtu
SANTIXAUAK11-14 Egitaraua eta tabernen gehigarria	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN15 "jai askeak" kanpaina martxan	SAREAN GALDEZKA21 Kaltxangoko errotonda
	ABUZTUKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Ainhoa Zuazua

Orain dela 20 urte joan zen Ermutik, Madrilera lehendabizi, Kantuko Goi Mailako ikasketak egitera. Ordutik Viena, Estrasburgo eta Orleansen bizi izan da Ainhoa Zuazua. Gaur egun Frantziako hiriburuan du bizilekua.

- *Nolakoa da bizitza Parisen?*

Niretzako oso atsegina. Abeslaria naiz, eta erritmo ezberdinean bizi naiz, baina asko gustatzen zait hemen bizitza. Lan egiteko aukera zabala dugu artistok, maila ezberdinetako antzerki ugari daudelako. Abantaila asko ditu hiri honetan bizitzeak, arte-mundua oso zabala delako, eta gauza ezberdin asko egin daitezkeelako.

- *Nolakoa da zure egun arrunt bat?*

Ba egia esan ez daukat egun arruntik! Lanari dago-kionez, kontzertuak eta opera produkzioak egiten ditut batik bat. Opera prestatzen ari banaiz, ez naiz etxean egoten, beste hiri batean egoten naiz. Kontzertuak prestatzen banabil, aldiz, entseguak finkatu eta haiek jarraitzen ditugu. Egia esan ez ditut bi egun berdin izaten.

- *Zer da Paristik gehien eta gutxien gustatzen zai-zuna?*

Bertako arkitektura asko gustatzen zait, oso aberatsa da. Museoak ere oso gustuko ditut: Louvre eta Rodin gehien. Eta gutxien gustatzen zaidana... turistak!

- *Nolakoak dira paristarrak?*

Denetik dago, baina orokorrean atseginak dira, oso irekiak, eta kanpoko jendea atsegin dute.

- *Oso bestelako ohiturak dituzte?*

Bai, oso. Adibidez, hemen jendeak ez du bizitza kalean egiten, Euskal Herrian gertatzen den bezala. Jaterako orduan ere ezberdinak gara. Esaterako, hemen oso ohikoa da gazta jatea bazkalostean eta afalostean, postrea baino lehen.

- *Ondo moldatzen zara frantsesez?*

Bai, oso ondo. Gainera,



gaztelera, euskara, galiziarra, ingelesa, alemana eta itailera hitz egiten dut.

- *Zer egiten duzu aisialdian?*

Askok gustatzen zait zinera joatea, maite dut frantziar zinema. Askotan ere museo-etara joaten naiz.

- *Zerbait botatzen duzu faltan?*

Ostegunetako pintxo potea! Eta familia eta lagunak, noski, asko!

- *Noiz egon zara Ermuan azken aldiz eta noiz buel-*

tatuko zara?

Maiatzean egon nintzen eta abuztuan bueltatuko naiz seguruenik.

- *Gurera bizitzera itzuliko zarela uste duzu?*

Gaur-gaurkoz ezetz esango nuke, hemen oso gustura nagoelako lanean, baina gauzak aldatu daitezke. Denaren, Ermua asko gustatzen zait eta nahiko nuke horrela jarraitzea, nahi dudanean bertara joaten eta familia ikusten.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

Garraioak, S.L.


☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Asier Madarieta Tenerifeko hegoaldeko Montaña Amarilla sumendian.

Asier Madarieta, geologoa:

“Tamalez jendeak ezer gutxi daki lurrazpian dugunari buruz”

Geologiako ikasketak egin zituen EHU, eta Granadako Unibertsitatean Geofisika Masterra burutu zuen. Azken urtea Kanariar Uharteetako Institutu Bolkanologikoan eman du Asier Madarieta ermuarrak. Sistema bolkaniko ugari dituzten uharte hauetan ikerketa lanak egin ditu eta, lan esperientzia aberasgarria bizi eta gero, bueltan dago Granadan. Arrisku sismikoei helduko die oraingoan. Lotura berezia dauka Asierrek Andaluziarekin. Izan ere, duela urte batzuk, oinez sartu ezin daitekeen kobazulo berria topatu zuen Nerjan, metodo geofisikoak erabiliz. Ikerketarako grina ez zaio falta.

- *Zein da Institutu Bolkanologiko baten zeregina?*

Kanariar Uharteetako Institutu Bolkanologikoak 4 arlotan egiten du lan. Alde batek, sumendi-zaintza egiten du, hau da, sistema bolkanikoaren aktibitatea neurtzen du eta beronek sortu ditzakeen arriskuak aztertu. Hurrengo arloa honekin lotuta dago, ikerketan jasotako datu hauek biztanleei azaltzen dizkielako, hezkuntza-programa deritzonaren bitartez: nolakoa den euren bizilekua, noiz izan den azken erupzioa... Hirugarren esparruan energia geotermikoa aztertzen da. Izan ere, sumendiak beroa du barnean, eta bero horren energia probetxugarria den aztertzen da, onura ekonomikoak ekar ditzakeelako. Amaitzeko, ikerkuntza egiten da beste hainbat esparrutan: uharteen egitura geologikoa, beste sistema bolkaniko batzuen azterketa, eta eremu bolkanikoetako akuiferoen azterketa, besteak beste.

- *Zein arlotan egin duzue zuk lan?*

Ikerketa zientifikoaren atalean jardun dut. 1704-1705ean erupzio historiko hirukoitza egon zen Tenerifen: Siete Fuentes, Fasnía eta Arafo sumendietan. 1704ko gabonetan, Siete Fuentes sumendiak erupzioa

Siete Fuentes eta Fasníako erupzio historikoen artean, eremu magnetikoaren intentsitatea neurtzen (Cañadas del Teide parke nazionalan).



izan zuen; bukatu zenean, Fasnía sumendia hasi zen jardunean; eta hau baretu zenean, Arafo sumendia esnatu zen. 1705eko otsailaren amaieran bukatu ziren erupzioak. Nik ikertu dut sumendi horietan azaleratu ziren labek zer nolako bidea egin zuten lurrazalera irteke. Ikerketa magnetikoen ondorioz, jakin izan dugu bide hori *dike* deituriko sistema baten bidez egin zela. Dikeak lurraren azala moztu zuen puntu batzuetan, laba irtenaraziz eta hiru sumendiak sortuz.

- *Hori izan da Kanariar Uharteetan egon den azken erupzioa?*

Ez. Hurrengo urtean, erupzio entzutetsua gertatu zen Tenerifen bertan: Arenas Negras sumendiak Garachico portua jo eta estali zuen. Eta 1909an Chinyero

sumendiak azken erupzioa egin zuen Tenerifen. Kanariar Uharteetako azken erupzioa aire zabalean 1971n izan zen, La Palma uharteko Teneguía sumendian. Hala ere, beste erupzio bat egon zen duela 8 urte. El Hierro uhartearen hegoaldean gertatu zen, baina ur azpian. Erupzioan sumendia hazi eta itsas mailatik 100 edo 200 metrotara gertatu zen, baina ur azpian gertatu zenez ez zuen arrisku handirik sortu.

- *Gaur egun zenbat sumendi daude aktibo Kanariar Uharteetan?*

Kanariar Uharteetako irla bakoitzak sistema bolkaniko propioa du, eta gehienak aktiboak dira, baina bolkanismo historikoa duten bakarrak dira Lanzarote, Tenerife, La Palma eta El Hierro. Beste hiru irlek ez dute bolkanismo historikorik, azken milioika urteetako aktibitate bolkanikoaren aztarna geologiko garbia egon arren.

- *Gaur egun erupzioa egoteko arriskua dago?*

Arrisku txikia dago. Kanariar Uharteetako larrialdi

bolkanikoak neurtzen dituen organismoak (PEVOLCA) 4 kolore dituen semaforoaren ardura du. Semaforo honetan kolore berdeak egoera normala dagoela adierazten du; horiak, sumendien parametroren batean aldaketa egon dela; larriak, sumendien parametro bolkanologiko gehienek gora egin dutela; eta gorriak, ostera, erupzioa dagoeneko hasi dela edo hastear dagoela. Semaforoaren datuak ostiraleko kaleratzen dira, eta publikoak dira. PEVOLCA sortu zenetik semaforoa ez da sekula berdetik aldatu.

- *Zeintzuk dira aztertzen diren parametro horiek?*

Zaintza egokia bermatzeko hiru aldagai neurtzen dira: eragile geofisikoak, geokimikoak eta geodesia. Azterketa geofisikoak jarduera sismikoa neurtzen du batik bat; geokimikak aireko, lurzoruko eta uretako gas isurketak aztertzen ditu; azkenik, geodesiak lurraren deformazioa aztertzen du.

- *Erupzio baten aurrean, zer nolako neurriak hartuko lirateke?*

“Luiziak urtegieta eman daitezke eta tsunamia sortu dezakete”



RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Caperos
Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

PEVOLCAk badu emergentziatarako protokoloa, baina zientzialarien lan bakarra da egoeraren berri ematea. Neurriak ezartzearen ardura Babes Zibilarena, politikariena eta beste egitura eta instituzioena da. Hari horretatik esan behar dut ondorioak leuntzeko ez direla bakarrik momentuko erabakiak hartu behar, aldez aurretik ere lana egin behar da. Aurretiko lan horretan garrantzitsuena biztanleen formakuntza da: zein eremu geologikotan dauden jakitea, zer gertatu daitekeen eta nola aurre egin. Horrez gain, lurrikarek aurre egiteko gai diren egiturak eraiki behar dira, eta eraikin garrantzitsuak (ospitaleak, aireportuak...) arrisku gutxien dauden eremuetan kokatu behar dira, besteak beste.

- Zure ustez zer dakite herritarrek honen inguruan?

Tamalez, ezagutza txikia dugu, ez dakigu zer dagoen lur azpian. Arazoa da Kanariar Uharteetan erupzioen maiztasuna oso handia dela (40 urtetik gorakoa), eta

biztanleek ahaztu egiten dituzte hauen eraginak. Diotenez, bi belaunaldi igaro eta gero historia ahaztu egiten da, eta hemen maiztasuna bi belaunaldira heltzen ez den arren, gertu geratzen da. Orduan, sumendi baten azpian gaudela jakin arren, kontzientzia hori galduta dugu. Hemengo sumendiak geldoak dira, baina erupzioak eragin latzak izan ditzake. Hezkuntzan eragin behar da, eta horren ardura zientzialariena zein instituzio politikoena da.

- Tenerifetik bueltan zaude jada. Esperientzia aberasgarria izan da?

Bai! Geologia ikasi nuen landa-lana asko gustatzen zaidalako. Gainera, ezagutzen ez nituen inguruneak ezagutzeko aukera izan dut. Tenerife eta El Hierro, adibidez, goitik behera ezagutu ditut. Eta La Palmako hegoaldea. Beste alde batetik, ikasitakoa etorkizunean burutu nahi ditudan ikerketetarako oinarri garrantzitsua izango da.

- Zeintzuk proiektu dituzu?

Gaur egun Granadan nago berriro ere. Izan ere, Kana-

“Zientzia euskaraz ere garatu nahiko nuke”

riar Uharteetara joan baino lehen, urtebete eman nuen hemen lanean, eta ikerkuntza-talde horretara bueltatu naiz. Plaka tektonikoen esparruan jarduten dugu, arrisku sismikoak aztertzen. Nire asmoa Granadako Unibertsitatean doktore-tesia egitea da. Mendikate Betikoa dago hemen, Gibraltarretik Balear Uharteetara doana. Gibraltarren mendikateak bihurtzea egiten du (Gibraltarreko Arkua deritzona), eta nire asmoa da aztertzea bertan ematen diren prozesu tektoniko aktiboak eta horiek sortu ditzaketen arrisku geologikoak. Ikerketan jarraitu nahiko nuke datozen urteetan.

- Arrisku sismikoa ere aurretik neurtu daiteke?

Plaka teknikoek etengabe mugitzen dihardute. Mendikate Betikoen kasuan, Plaka Eurasiarrak Plaka Afrikarrekin egiten du talka. Talka horren ondorioz mendikateak sortzen dira, baina plaken mugimenduaren ondorioz sortutako indarrek guregan eragin negatiboak izan ditzakete. Izan ere, talka hauetan lurrazala apurtzen da, eta apurtzerakoan lurrikarak sortzen dira. Ezin daiteke jakin noiz eta nolako lurrikarak egongo diren, baina datuetan oinarrituta, estatistika bat egin eta lurrikara egoteko probabilitatea aurreikusi daiteke.

- Badaude geologian bide berriak aztertzeko?

Bai, hainbat daude. Besteak beste, proiektuan jorratzen ari garen gai bat: Lur-jausiek ur masetan sortu ditzaketen tsunamien azterketa. Lurrikara gertatzen denean, lurrak dardara egiten du, baina dardara hau ez da eragin bakarra. Lurrikararen eraginez, lurrak mugitu eta egonkortasuna galdu dezake lur-jausiak eraginez. Fenomeno hau ur masa baten inguruan gertatuz gero, uretara erori eta tsunamia sor dezake. Normalean tsunamiak itsasoetan sortzen dira, baina luiziak urtegien inguruan eman daitezke, eta sortutako tsunamiaren ondorioz urtegia apurtu edo gainezka egin, 1963an Italiako Vajont urtegian gertatu zen bezala. Gaur egun esparru hori aztertzen ari gara.

- Ikusten duzu zure burua Euskal Herrian lanean, geologiaren esparruan?

Bai, nire helburuetako bat da Euskal Herriko Unibertsitatean ikerketan eta irakaskuntzan amaitzea. Eta nire ezagutza geologikoak hurrengo belaunaldiei euskaraz transmititzea. Zientzia ingelesez lantzen da batez ere, baina uniformetasun horretatik irten nahi dut, eta zientzia gure hizkuntzan ere garatu ahal izatea nahiko nuke.

Dorleta Vidal

Estazio magnetotelurikoa instalatzen, Cañadas del Teiden.



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELLETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMA 3-943170563
 ERMUA

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresia da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Etengabeko lana, uzta oparoaren sekretua

Joana Alonsok, Miriam Lópezek eta Olatz Vidalek Malle-Azpi kalean dauden ortu ludikoetan ematen dituzte arratsalde ugari. Mallabiko Udalak martxan ipinitako ekimen honi esker, sasoiari sasoikoa erein, eta uzta ekologikoa dastatzeko aukera dute bertako hainbat herritarrek.

Duela 6 urte Mallabiko Udalak galdeketa egin zuen. Herritarren proposamenak jaso nahi zituen, herriaren jarduera-eskaintza hobetu eta zabaltzeko helburuarekin. Mallabitar batzuk herritarrentzako ortuak sortzeko proposamena egin zuten, eta hortik etor liteke proiektu hau, diote Joanak, Olatzek eta Miriamek.

Malle-Azpin zegoen lursail bat atondu zuen Udalak 2013an, eta 60 metro karratuko 20 ortu prestatu zituen. Baina hortik aurrera, ortuzainen parte-hartze eta ahaleginak ezinbestekoak izan dira. “Udalak sarbidea eta ortuak prestatu zituen, txabola erosi zuen eta erremintez hornitu —gogoratu dute hirurek—. Orduetik, ortuzainok arduratu gara txabola egoera onean mantentzeaz. Erremintak apurtzen direnean, edo gehiago behar direnean ere, guk erosten ditugu”. Horrelako gastuei aurre egiteko, kuota bat ordaintzen dute hilero MOEE-an, hau da, Mallabiko Ortu

Ekologikoen Elkartearen.

Elkarte honen estatutuetan jasotzen denaren arabera, ortuen helburua da herritarrek lurrari gerturatzea, nekazaritza ekologikorantz bideratutako aisia aktiboa sustatzea, eta elikadura osasungarria bultzatzea, besteak beste. Balore hauek umeei transmititzeko nahia ere badago, eta herriko txikiak ortura gerturatuzeko hainbat bide aztertzen ari da Udala, baina egitasmo horiek ez dira oraindik gauzatu.

Tomatea, izarra

Urteetan zehar gorabeherak egon diren arren, gaur egun 12 ortu lantzen dira. Eta horietako baten jabe izateko bi baldintza bete behar dira: Mallabian bizitzea eta 18 urtetik gora izatea. “Ortuzainok, gainera, produktu ekologikoak erabiltzeko konpromisoa dugu koko eta izurriteak saihesteko. Era berean, ezin dugu gure uzta saldu, ezta zuhaitzak landatu”, azaldu dute.

Gazte zein nagusi ibiltzen



dira ortuetan lanean, baina erretiratuta dauden erabiltzaileak dira hemen ordu gehien egoten direnak. “Entretanimendu handia da eurentzat, eta laguntzeko prest egoten dira”, diote. Izan ere, kideen arteko harremana ona dela aitortzen dute, eta ezagutzak partekatzeko prest daudela orokorrean. “Hemen hasi ginean ez genekien gauza handirik, eta Barrenetxe baserriko José Luis Arriagak eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko Ekolur aldizkari-ko arduraduna den Haritz Mayorak hainbat ikastaro eskaini zizkiguten”.

Horri esker, sasoiari sasoiko barazki eta frutak landatzen ikasi dute: Horien artean bat aipatzekotan, tomatea nabarmentzen dute aho batez: “Ortuko izarra da!”, diote. Hala ere piper, leka,

porru, patata eta kalabazin-uzta oparoa jasotzen dute urtero, eta euren lurrak denetik eman dezakeela aitortu dute. Hori dela-eta hazi exotikoagoak ere erein izan dituzte bertan: tomate beltza, kalea, romaneskoa, bruselaza, alkatxofak, zainzuriak, osterzuria eta hamaika espezieta usain-belarrak, besteak beste.

Joanak, Miriamek eta Olatzek uste dute hiri-ortuak modan daudela, eta badakite hainbat herritan horrelako ekimenak martxan daudela. Ingurukoetan ez, ordea, eta sarritan galdetzen diete nola hartu daitekeen parte Mallabikoetan. Aipatu bezala, herrikoa izan behar da, baina horrez gain, gogoa eta etengabeko lana ere behar dira, bestela lurrik emankorrenak ere ez du fruiturik ematen.

Dorleta Vidal



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Drogeteniituri, 280 zk.

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Eskerrik asko Anaitasuna Ikastolako 50. urteurrenean parte hartu duzuen guztioi!!



BABESLEAK

Ermuko Udala - Danobat Group - Laboral Kutxa

Herriko tabernariak: Titanic, Karikato, Zutabe, Giroa, Sagarra, Ertz, Torrekua, Sorgin, Mahasti, London, Karabixa, Lurpe, Hanigan's, Zabal, DQ Mouth, Infreñu, Yomy eta Txalaparta.

LAGUNTZAILEAK

Antxixiketan, Alboka Musika Eskola, Salda dago, Issuna, Stai Zitto, Kokein, Gorka González, Estibalitz González, Jose Antonio Muñoz, Aitor Ojea, Arari Elkarte, Drogeteniturriko gehigarriko laguntzaileak, Drogeteniturri, Infreñu, Titanic eta Eskilarapeko.



Anaitasuna Ikastola
1968 · 2018

KARMELE GISASOLAK IRABAZI DU EUSKADIKO HARRI-JASOTZE TXAPELKETA

Ekainaren 30ean Mungian burutu zen txapelketan, Karmele Gisasola "Zelai III."ak jantzi zuen txapela harri-jasotzean. Guztira 3.012,5 kilo altxatu zituen: hamabi altxaldi 87,5 kiloko zilindroari, zazpi 75 kiloko kuboari eta 23 altxaldi 62,5 kiloko bolari. Bere aurkaria Julia Martinez segoviarra izan zen, eta honek 2.375,50 kilo altxatu zituen, Karmelek baino 637 kilo gutxiago. Egun berean aizkora txapelketa burutu zen, eta Nerea Sorondo nafarrak irabazi zuen txapela.

40 UMEK BAINO GEHIAGOK PARTE HARTU DUTE UDALEKUETAN



Mallabiko Satxibu aisialdi taldeak Udalaren laguntzarekin antolatu dituen udalekuetan 4 eta 12 urte bitarteko 43 umek hartu dute parte, 6 begiralez lagunduta. Lau aste iraun duten udako kolonia hauetan, hainbat ekintza dibertigarri egiteko aukera izan dute izena emandakoek: jokoak, eskulanak, izozkigintza, txangoak... azken hauek itsasoa, mendia, igerilekuak eta museoak tartekatuz burututakoak. Natura zaintzeko kontzientzia areagotzeko aurtengo ildoari jarraituz, erreka garbitzen aritu dira eta ostiraletan azokak antolatu dituzte plazan, errekan batutako guztiarekin eta asteen zehar tailerretan egindako eskulan eta abarrokin.



ANDRA MARI JAIK

Abuztuaren 14a, asteazkena. Umeen eguna.

11:30-13:00 Mallabiko Trikitilariak kaleak girotzen.

12:00 Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak, eta Gazte Alai dantza taldekoek aurrekua egingo diote.

12:30-14:30 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea eta puzgarriak herriko frontoian.

18:00 Bits-festa parkean.

18:30-20:30 Kale animazioa Burrenba txarangarekin.

19:00 Txupinazoa, Gazte Alai dantza taldearen eskutik.

19:30-21:00 Txokolatada plazan, eta ondoren V. Adarra jotzea. Sariak: 1. saria, 40€ko erosketa-balea; 2.a, 20€ko erosketa-balea.

21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean: Mendizabal III - O. Etxebarria // Elordi - Tolosa

Elezkano II - Zabaleta // Altuna III - Rezusta

Sarrerak abuztuaren 5etik 13ra salgai udaletxean mallabitarrentzat. Partidu egunean, 25€.

23:00 Erromeria Gora Herria taldearekin, plazan.

ABUZTUAK 15a, osteguna. Andra Mari eguna.

11:00 Meza Jasokunde parrokan. Ondoren Mallabiko dantzariak plazan (euria bada herriko frontoian).

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrear. Sariak: 120€ eta garaikurra, 100€, 80€ eta 60€. Izen-ematea: 10€ bikoteko.

17:30 Mallabiko XXIX. Harri-jasotze Saria Harri Txikia Mallabia I Kirol Etxean. Parte-hartzaileak: Mikel Lopetegui, Xabat Olaizola, Iñigo Eizagirre, Manex Aburuza, Iraitz Arruti, Ureta, Mateo Coloma, Inhar Urruzuno eta Julio Jiménez. Sariak: 900€, garaikurra eta txapela; 750€ eta garaikurra; 600€ eta garaikurra eta 500€. Gainerako parte hartzaileentzako 300€ko dieta. Dagoen marka haus-tuen duenari, 200€.

19:00 The Funes Troup kale antzerkia, parkean.

22:30 Korrontzi dantzan taldearen ikuskizuna parkean.

Abuztuaren 19a, ostirala. San Roke eguna: nagusi eta koadrilen eguna.

11:00-14:00 Paella eta marmitako lehiaketak. Izen-ematea 11:30ean. Sariak, marmitakoa: 1. saria 110€ eta 2. saria 55€. Paella: 1. saria 110€ eta 2. saria, 55€.

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa.

12:00 Meza, Jasokunde parrokan.

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sari-banaketa.

14:15 Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrear.

16:00 Duo Jamaica jubilatuentzat Kontzejuzarrear.

17:30 Koadrilen arteko jolasak.

20:00 Mallabitar guztientzako txerri errea (2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan.

20:30 Erromeria Luhartz taldearekin plazan.

Eskuz egindako terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

ONDO PASA SANTIXA UETAN!



Argazkiak: Xabier Ciarolo

UZTAILAREN 24a, ASTEAZKENA

- **17:00** Patxi plazan, **JAI OPARI BANAKETA** Droga-mendekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocado musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00 / 4:00 DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Nueva Alaska orkestrarekin.

- **23:00 / 3:00** Martxoaren 8a plazan **ROCK JAIALDIA** Ermuko Orihen eta We Are Apes, Hello! eta Kalaluniako Cronopios taldeekin. Beti Txartok antolatuta.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

KARABIXTA

KARABIXTA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer



UZTAILAREN 25a. OSTEGUNA

- **7:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.
- **7:30** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.
- **8:00** **SOKAMUTURRA** Ongaraiko Eskolako patioan.
- **12:00** San Pelaioko Bolatokian **BOLO-PALMA**ko **SANTIXAUAK 2019 SARIA** Ermuko eta Eibarko Bolo-Palma elkarten artean, Peña Bolística Montañesak antolatuta.
- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00** **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA NAGUSIA** herriko patroiaeren omenez.
- **12:30** **HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Harrijasotzaileak: Inaxio Perurena, Haritz Ureta eta Karmele Gisasola. Aizkolariak: Hodei Ezpeleta, Ioritz Gisasola, Julen Larrea eta Alex Txikon.
- **12:30** **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangaren eskutik.
- **17:00** Aritzmendi pilotalekuan, **PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK**: Bizkaiko Foru Aldundiaren talde-txapelketako final erdia, Ermuko Pilota Taldeak antolatuta.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaeren eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangarekin.
- **20:00** Orbe Kardinalaren plazan, **LARRAINDANTZA** nahi duen guztiak parte hartzeko.

HAMBURGUESERIA TITANIC

Cantabria 2 · 48260 ERMUA (Bizkaia) · 943 17 67 83

- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan, **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltzaindia taldeak antolatuta.
- **22:30** San Pelaioko plazan, **HELDUENTZAKO KLOWN IKUSKIZUNA** Francis J. Quirosen eskutik.
- **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan, Vulkano show orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.



ASTARLOAN

GOXO GOXO

Kafé & Deliss

Tfo.: 943174612



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
5€ tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...

Tel. 943 17 15 57
ERMUA

ARTS STEGEN

Gosariak, pintxoak, afariak

Egunero zabalik
8:00etatik aurrera

San Pelaijo zeharbidea 4
608 736 900

Ondo
pasa
Santixau
jaietan!!

DROGETEN ITURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria



UZTAILAREN 26a, OSTIRALA

- 7:00 Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.
- 7:30 Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan **BARRUS** partidak.
- 8:00 Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.
- 12:00 / 14:00 eta 17:00 / 20:00 San Martin plazan **HAURRENTZAKO PARKEA**.
- 12:00 Orbe Kardinalaren plazan, **NAGUSIEI OME-NALDIA** eta Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei **SARIAK BANATZEA**.



- 12:00 **KALEJIRA** Mexico Lindo Mariachi bandaren eskutik. Ostean, Orbe Kardinalaren plazan **KON-TZERTUA** eskainiko dute.
- 14:00 Merkatu Plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- 18:00 Orbe Kardinalaren plazan, **ESKUPILOTA** partidak, Pilota Taldeak antolatuta: lehenengo afizionatu kategoriako nesken binakako partida Nagore Aramendi-Leire Etxaniz bikotea Olatz Arrizabalaga-Gentzane Aldairen aurka, eta ondoren afizionatu kategoriako mutilen binakako partida Iñaki Elola-Iker Elizegi bikotea Gorka Otaduy-Aitor Etxeberriaren kontra.
- 19:00 Orbe Kardinalaren plazan, Gari, Montxo eta Joselontxok "Txirinbolo" **PILAZO IKUSKIZUNA** eskainiko dute.
- 19:00 **KALEJIRA** Ustekabe musika-bandak alaituta.
- 19:00 **KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.
- 20:00 Orbe Kardinalaren plazan **LARRAINDANTZA**.
- 22:30 San Pelaio plazan Granadako Vol, E Temps taldeak "Distans" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du.
- 23:00 / 4:00 Orbe Kardinalaren plazan Montecristo Orkestrak, **DANTZALDIA** alaituko du.
- 23:00 / 3:00 Martxoaren 8a plazan, **TECHNO JAIALDIA** Lisboa Du Art eta Ermuko Alexander M. DJekin. Beti Txartok antolatuta.



KARIKATO

TR. KANTABRIA N°1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)



infretaberna

Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584



UZTAILAK 27. LARUNBATA

- **7:00** Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela- Leoneko Kultur Etxeak eskainita.

- **7:30** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, **BARRUS** partidak.

- **8:00** Ongarai Eskolako patioan, **SOKAMUTURRA**.

- **11:00 / 12:30** arroz-banaketa Orbe Kardinalaren plazan. Ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** herrikoitari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzailea: Lobiano Gastronomi elkarte. Laguntzailea: Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarte.

- **11:00** Martxoaren 8a plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00** San Martin plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA**.

- **12:30 KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.

- **13:00 KALEJIRA** Macjeara,s Jazz bandaren eskutik.

- **14:00** paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

- **18:00** Orbe Kardinalaren plazan, **ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.

- **19:00 KALEJIRA** Irulitxa txarangaren eskutik.

- **19:00 KALEJIRA** Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan paella lehiaketako epaimahaikideek **IRABAZLEAK** ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** ekingo da.

- **19:15** Orbe Kardinalaren plazan **AURRESKUA** eta **LARRAINDANTZA** nahi duten guztientzat.

- **20:00 ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.

- **20:30 KALEJIRA** Frantziako Rock Box bandarekin.

- **22:00** Orbe Kardinalaren plazan McOnak taldearen **KONTZERTUA**.

- **23:30** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.

- **00:00** Ongarai parkean **SUZIRIAK** Astondoa piroteknien eskutik. Ondoren, **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan **AGUR JAU-NAK** abestea, aurtengo jaiei agurra emateko.

- **00:30** Orbe Kardinalaren plazan, **JAIEN AMAIERA** Mucedades taldearen kontzertuarekin.



Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

esonline[®]

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esonline.es

Desiak

PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

488 lagunek parte hartu dute udalekuetan



Ermuko udako aisialdiko ekintzek inoizko kopururik altuena izan dute: 488 lagun. Udalekuak zein Ludoteka eta Gazte Ibiltariak ekimenek, 47 begiraleren premia izan dute 2 urtetik 17ra bitarteko udatarrotaz kargutzeko. Eguraldia lagun eta gozamena helburu, denetik egin dute lagunarte ederrean: egun erdiko ekintzak, egunpasak, gau-pasak (ejem-ejem!), dantzak, jolasak... tailer desberdinen bidez euskal mitologia, bizikidetzeta edota

berdintasuna landuz. Saltsa polita erabili dute, bai!

Nü Shu taldeak "Jai askeak" kanpaina burutuko du aurtengo Santixauetan



Badira 4 urte Ermuko gazte talde feministak (Nü Shuk) Jai batzorde feminista sortu zuela. Honen helburua da Santixauetan ikuspuntu feminista bermatzea, eta horretarako "Jai askeak" kanpaina burutuko du aurtengoa. Honi esker, "Santixauak jai parekideagoak bihurtu nahi ditugu", adierazi dute taldekideek. Lau ekintzek osatzen dute kanpaina hau. Alde batetik Jai Feminista ibiltaria egingo dute uztailaren 26an, eta honek feminismoa jaietan argiago ikusteko balio izango du. "Egun honetan,

musikaz eta dantzaz gain, beste hainbat sorpresa egongo dira, akelarrea adibidez", esan dute arduradunek. Beste aldetik, Brigada Morea egingo da aurtengoa. "Tamalez emakumeok erasoak pairatzen jarraitzen dugu, jai giroa aprobetxatuz. Horiei aurre egiteko, "Jai askeak" kanpainan dauden emakumeok antolatu, formakuntza jaso eta erantzun bat eman-go diegu eraso horiei, prestatutako protokoloaz baliatuz", azaldu dute arduradunek. Brigadan parte hartzen duten emakumeek besoko morea eramango dute. Azkenik, bai kaleetan bai sare sozialetan, jaietan giro feminista lortzeko mezu ezberdinak zabalduko dira. "Alde batetik, Ermua pankartzat eta kartelez beteko da erasotzaileen aurkako mezuekin eta emakumeak ahalduzko leloekin —antolatzaileen esanetan—. Bestalde, informazio eta komunikaziorako tresnak baliatuz, mezu hauek eta egiten diren ekintza guztiak gure sare sozialetan ikusi ahalgo dira: Facebook (Jai askeak kanpaina - Nü Shu), Twitter (@JNushu) eta Instagram (Jai Askeak Kanpaina - Nü Shu)".

KALTXANGOKO PLAZA INAUGURATU DA

Uztailaren 9an Kaltxangoko oinezkoentzako gunea inauguratu zuen Udalak. Parkea eta lorategiez gain, autobus geltokia ere kokatu da bertan. 300.000€ko aurrekontua izan dute obrek, eta sei hilabeteko epean burutu dira.



MÉLIDA OSTATUAK EUROPAR BATASUNEN ECO LABEL ZIURTAGIRIA JASO DU

Uztailaren 9an Donostiako Tabakalera Kultur Zentroan burututako ekitaldian, Euskal Herriko 500 turismo-enpresek hainbat ziurtagiri jaso zituzten. Ermuko Mélida Ostatuak lau ziurtagiri jaso zituen. Horien artean Ecolabel nabarmentzen da, Euskal Herriko 8 enpresek bakarrik lortu dutelako. Horrez gain jaso zituen Energia-eraginkortasunaren Ziurtagiria, SIC-TED diploma eta Informazio eta Komunikazioen Teknologien esparruan jardunbide egokiak ziurtatzen duena.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

Urbano Manchobas, izen handiko arkitektoa (II)

Aurreko alean, heriotza-zigor bati ihesika, erbestera begira laga genuen Ermuko seme hau. Bera eta bere familiarentzako babesa eta bake lekua bilatuko du Europan lehenengo eta Venezuelan gero. Bere ibilbidearen hariari tiraka jarraitzeko aukera ondoko lerrootan.

1937. Gerratearen su eta garrak oraindik bizi-bizi, Santanderrera aldeko du. Hantxe amaitzen da gerratearekin batera Ermuan hasi zuen diarioa eta, susmatzerik ez badu ere, bertan hasiko du itzulerarik gabeko bidaia. Ziburun batuko da emazte Manolita eta hiru seme-alabekin. Arkitekto legez lana egiterik ez duenez, marrazkilari gisa arituko da hango altzari-denda baten.

1938. Seme-alabak Bruselara bidaliko dituzte andragizonak; beranduago, babesa eta bizi izateko aterpe bat eskainiko dien Malinas hiri flandriarrera ailegatuko dira eurok. Anberesen, Urbano funtzionario gisa ariko da Belgikan kokatuta dagoen Euzko Jaurlaritzarentzat. Ormaiztegiko zubiaren aingurak askatzeko ekimenagatik, bere zain hiru heriotza-zigor ditu Pirinioen alde honetan, “pena de muerte en ausencia” sailkapenarekin. *Ausentzian*, bertan ez zela epaitua izan zen adierazle.

1939. Munduko II. Guda hasi baino egun batzuk lehe-

nago, Urbano Venezuela-rantz abiatuko da itsasontziz. Caracasen Leizaola familiaren Zumaia Hotelean hartzen du ostatu, Espainiatik hanka egindako euskaldun ugarirekin batera. Hamar urte luze egingo ditu han bakarrik, etxeok ikusteke, itzultzeko irrikan, adi beti hemengo egoerari... Nazioarteko komunitatearen erregimen frankistaren onespének ilusio asko zapuztuko ditu eta, epe laburrean gatazka zuzentzerik ez dagoela ikusita, andra-gizonek familia osoa Venezuelan batzea erabakiko dute. 1949a amaitzear da.

Dena egiteke

Ana Isabel Recalde, Deustuko Unibertsitateko irakasleak *Identidad e integración. Voces del exilio vasco* lanean argitzen duenez, “Venezuelak harrera egin zien ez bakarrik esiliatu euskaldunei, espainolei ere. Han petroleoaren eraginez aldaketa betean zegoen herrialdea topatu zuten eta lanbide liberaldunek, tartean arkitektoek, gizarte ve-



nezolarraren garapen eta gorgaldian hartu zuten parte”. Urbanok ia bizitza osoa Construcciones Paul enpresan emango du lanean. Henry Vicentek *Arquitecturas desplazadas. Rafael Bergamín y las arquitecturas del exilio español en Venezuela* izenburuko doktoretasian esaten digun bezala “Venezuelara erbesteratutako arkitektoen lanaren ikus-

pegi panoramiko batek, bi muturretan jartzen gaitu: Rafael Bergamínena, Espainiako arkitektura razionalistaren protagonistarena, eta Urbano de Manchobasena, bere euskal aurrekari erregionalak esploratzeko aro betean zegoena”. Autore honek argitzen digun bezala, 50eko hamarkada sasoi oparora izango da Manchobasentzat. Eraikuntza ugari si-

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336

natuko ditu, batzuk 2005etik Interes Kulturalerako Ondasun legez katalogatutakoak, eta hamarkada horretako "hiri arkitekturarik onenaren testigantza" kontsideratutakoak: Carlos Delgado Chalbaud urbanizazioa (1950tik aurrera), Aralar eraikina (1950), Maria Auxiliadora ikastetxea (1953), *nevasco* estiloko Yriarte (1955) eta Urbaneja (1956) etxeak, El Carmelo ikastetxea (1957)... Hauen aurretikoak dira San Andres *quinta* (1940), N. Sra. de Guadalupe ikastetxea (1948) eta Colimodio eraikina (1949); beranduagoak eta 75 urteko gizon edadetua zela, Punto Fijo eraikina (1960), Jesus Obrero ikastetxearen aurreproiektua (1961) eta Coromotoko eliza (1961). Berak proiektatutakoak dira ere Carúpanoko udaletxea, Las Marías eraikina, Industria Farmazeutikoa, Ricardo Beimerren etxea, Biarritz erresidentzia



Caracaseko Yriarte etxearen aurrean, Arantza alaba.

eta Mendigain eraikina, zor-tzi lagunerekin bizileku izango dena, tartean bera, eta gaur egun ere Imanol semearen ondorengoena. Andoni Manchobas lobaren esanetan "Mendigain berak kalkulatu zuen. Caracaseko 1967ko lurrikara handian, etxeko guztiak alde eta berak, alargunduta ordurako, hantxe egin zuen lo, bazekielako zenbat hormigoi zuen, hormen zabalera, zutabeen sendotasuna... Tente jarraitzen du! Dena den, Caracas asko aldatu da eta berak kalkulatuak eraikin batzuk botata daude, berriak altzatzeko".

Han lagun handiak egingo ditu, euskaldunak asko. Arantza alabak Ana Isabel Recalderen lanean kontatzen duen bezala "Pixkanakako prozesua da, apurka-apurka inguratzen zaituen guztiaz erlazionatzen joatearena. *Bunker* baten bizi zara, baina ezagutzen zoaz euskaldunak, espainiarrak, venezuelarrak... eta integraztea beste erremediorik ez dago". Eta alabaren akorduz, mota guztietako lagunak "Gure aitak, nazionalista eta elizkoia, harreman handia izan zuen beste ideologia batzuetako pertsonekin; esaterako, biziki maite zuen Toribio Etxeberria ei-



Manchobas Egaña familia Anberesen, 1938an

bartarra, atea eta sozialista errepublikazalea. Izan zaitezkeen nazionalista, sozialista edo komunista, baina guztiaren gainera euskalduna. Lezio bat ematen digute". Euskal Etxeko saltsa, domeketako meza, familia... hauekin bere gainontzeko zaletasunak partekatzen ditu: irakurtzea, argazkiak ateratzea, margotzea (berak egindako irudiak Caracasen kontserbatzen ditu oraindik familiak), ibiltzea... 80 urte beteta, oinazean kilometroak egiten ditu Caracas guztian zehar, Andoniren gogorapenez "argal, ilea zurri, beti tente"... haren baten buruan oraindik proiekturen bat dantzan.

Euskal Herrira itzultze kontuetaz Arantzaren berbetan, "Aita hil arte behin-behineko egoeran bizi ginen guztiok, haren heriotza-zigorra tarteko. Amak esaten zuen bezala 'altzairuak, juxtuak', beti itzultzeko

esperantzarekin. Seme-alabak nagusitzen doazen heinean, bueltatzeko gogo bizi desagertuaz doa. Bena integratu den belaunaldia gure seme-alabena da". 60ko hamarkadan, Urbanok Euskal Herrira bidaiatzeko ahalegina egingo du, baina lagunek eta Euzko Jaurlaritzak burutik kenduko diote, bere kontrako zigor judizialak bere horretan jarraitzen duelako.

1968. Eroriko baten eta haren ondorengo ebakuntzaren konplikazioaren ondorioz, apirilaren 26an zenduko da. Caracaseko Hegoaldeko kanposantuan hilobiratzten dute, *Panteón de los Vascos* deritzon lekuan. Andoniren esanetan "aitxixak Venezuelan errekonozimendua eta aukerak izan zituen, eta aprobetxatzen jakin zituen". Doala hemendik ere gure aitortpena eta miresmena, Urbán!

Estibalitz González

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Autogestioak egingo gaitu aske

Azken urteotan Ermuko gazte mugimendua hazi egin da. Geroz eta gazte gehiago batu, antolatu eta borrokatzeko prest agertu dira gure herrian. Horren adibiderik argiena uztailearen hasieran burutu-tako Borroka Eguna daukagu. Orain arteko Gazte Eguna, jai egun soil bat izatetik Borroka Eguna izatera pasatu da. Gure aldarriak kaleratzeko eta herria autogestioaz, feminismoz, antiespezismoz eta elkartasunez betetzeko hautua egin zuten Gazte Asanbladako kideek eta hortara batu ginen gainontzeko gazteen kolektiboetako kideok; Arkanbele, Ernai eta NüShu Gazte Feministak, alegia.

Festak gure nortasunaren adierazle argiak dira, gizartearen izate kolektiboaren islada. Jaietan

gertatzen dena, ez da errealitate isolatu bat. Jai giroan murgilduta gaudelarik, drogen eraginpean egotearen aitzakiarekin edo "denak balio du" lelopean sarritan babesten da gizartearen egunerokotasunean onartezinak izango liratekeen jarrerak onartzeko. Zenbatetan ikusi edo jasan izan beharko ditugu eraso sexistak herriko taberna zein plazetan? Zenbat pertsona igoko dira sokamuturren animalia baten sufrimenduaz gozatzera? Mugimendu feministak erakutsi digun bezala, pertsonala politikoa da. Hortaz, jaiak eta bertan egiten duguna ere, politikoa da.

Dantza egiteko eta ospatzeko garaia heltzen denean, hitz horiek gogora ekarri eta borrokari tartetxo bat egin nahi diogu gaz-



Maialen Alvarez

teok. Horretan daramagu aspalditik, Txosnagune euskaldun, parekide eta autogestionatu baten alde lan egiten. Auzolanean oinarritutako jai eredu berri bat eraiki nahi dugulako. Hala ere, behin eta berriz Udalaren ezetza jaso dugu. Baina beraien traba guztien gainetik, gazteok antolatuta aurkituko gaituzte. Gure bidean jartzen duten oztopo bakoitzak indartsuago egiten gaituelako.

Gazteok batu, antolatu eta borrokatzeko gaitasuna daukagula erakutsi dugu behin baino gehiagotan. Goian egon nahi dutenen debekuen gainetik herria aktibatu eta autogestioa martxan jartzeko indarrak daukagu. Eta horretan jarraituko dugu.

“ Festak gure nortasunaren adierazle argiak dira, gizartearen izate kolektiboaren islada ”

FUB Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. **EIBAR**. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. **BILBO**. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

SAN PELAYO
HORTE KLINIKAK Y CLINICA DENTAL

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI CIL. Nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarako orduka. © 662 012 834.

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarako orduka. Jaurlaritzako titulua eta eskarmen-tua. © 603 514 085.



Uztailaren 26an
Zorionak Jonathan!
3 urte! Musu handi bat familiaren partez.



Abuztuaren 20an
Zorionak Lexuri!!!
Asko maite zaitugu. Oso ondo pasa zure lagunekin.



Uztailaren 28an
Zorionak Inhar!
2 urtetxo! Musu handi bat aita, ama eta Laidaren partez.

ALOKAIRUA

Abuztuaren 18tik irailaren 15ra. Donostian, Antiguu auzoan. Hondartzatik 5 minutura. 55metro karratu, berriztatuta, igogailuarekin. 2 logela, komuna, egongela, jangela, sukaldea eta Wifi. Hamabostaldia : 1600€ Angel © 699 027 734.



Abuztuaren 3an
Zorionak Aner zure 9. urtebetetzean. Musuak etxekoan partez. Ondo pasa uda!



Uztailaren 6an
Zorionak zure urtebetetzean, Beñat! Etxekoan partez.



Uztailaren 10ean
Zorionak zure urtebetetzean, Luken! Etxekoan partez.



Uztailaren 14an
Amaia zorionak!! 3 urte! Pila bat musu eta besarkada etxeko eta aitxitxa eta amamen partez.

LAN ESKAINTZA

Laguntzailea behar da Elgoibarko ile-apaindegi batean. Berehala lanean hasteko. Jardun erdia. Nerea © 943 24 62 25.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: Irailaren 16a.



Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK

KOLOREZKO FOTOKOPIAK

HANDIPENAK - TXIKIPENAK

PLANOAK - AZALEZTAPENAK

FAX PUBLIKOAK

INPRIMAKETAK KAMISETATAN



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua

943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLABIA 1951

Argazki hau 1951 urte inguruan aterata dago, Hanbreko saloian. Eugenio Aranbururen despedida ospatzen. Bertan agertzen dira:

Isidro "Bekutei",
Bixente "Etxebarri",
Bixente "Aldeko",
Gregorio eta
Eugenio "Bengo".



ERMUA 1968



Santa Ana egunez herriko amama nagusia eta gaztea omentzen. Plazan, Balabaneko etxeko leihoan Luis Suárez eta Sofia Gastón; eskaileretan Fermin Urreta, Rafa Totorika erdi ezkutuan makurtuta, Juan Mari Urreta, Jose Angel Ciarsolo,, Roberto Araiztegi eta Juan Lucio Ibaibarriaga; aurreko aldean, Teodoro Zuazua abadea, 96 urteko Priscila Serna, 35 urteko Teresa Baceiredo eta Ignacio Onandia alkatea. Foto Blancok atera zuen erretratua. Pare bat bitxikeri: bi urtera hildako Priscilak, bizitza-luzera sari gisa, kanposantuan ohikoak baino hamar urte gehiago hilobiratua jarraitzeko eskubidea izan zuen; Teresa, bere aldetik, Dalila alaba jaio berri, ama eta amama egin zen bi hilabete pasatutxoko aldearekin.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com


Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

2018ko otsailean errotanda eraiki zen Ermuko Kaltxangoko bidegurutzean. Ibilgailu eta oinezko ugarik erabiltzen dituzten lau kale lotzen ditu errotanda honek.

Uste duzu errotanda hau eraginkorra dela trafikoa erregulatzeko? Hobetu daitekeela uste baduzu, idatzi zure proposamenak.



Bai: 56 boto / Ez: 46 boto.

Uztailaren 4tik 11ra bitartean egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 102 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

● Errotanda soluzio ona da, arazoa da gidariek ez dakitela ondo hartzen. **Zebulon Otamendi.**

● Txikiegia da, eta semaforoak daude 4 sarreretatik 3tan. Aldi berean jartzen dira gorri, eta horren ondorioz errotanda kolapsatu egiten da eta kotxeak barruan geratzen dira trabatuta. Trafiko gutxi erregulatzeko aproposa litzateke, baina Ermuan ez da eraginkorra. Gainera, ezin da Zeharkaletik Areitiorantz zuzenean igo, buelta osoa eman behar da, ez dagoelako lekurik. **Julia Rosado.**

● Zaldibarreko bidea hartzeko semaforo hori kendu edo beste era batera ipini behar da. Ezin liteke errotanda erdian geratzea semaforo gorria dagoelako. **Aritz Lopez Parra.**

● Hiru barruan dauden errotondetan oso ohikoak dira semaforoak zebra-bideak direla-eta, Ermuan eta leku guztietan. Trafikoa asko hobetu da. **Susana Jimenez.**

● Errei bakarreko errotanda jarriko nuke. **Jose Angel Aguado Rodriguez.**

● Nik errotondan seinalizazioa jarriko nuke abiadura motela izateko. Seinalizazio bertikala eta horizontala... Demagun, 10 km gehienez. **José Luis González Blanco.**

● Esan dutena eta, gainera, oso zatarra dela, lore batzuk, eskultura bat... Ez dakit. **Iratxe Ugalde.**





URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailaqintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



UDAKO ZINEA

Abuztuaren 5ean:
Campeones.



Abuztuaren 7an:
Mamma mia: una y otra vez.




Abuztuaren 12an:
El mejor verano de mi vida.



Abuztuaren 14an:
Thi mai: rumbo a Vietnam.



Abuztuaren 19an:
Ocean's 8.



Abuztuaren 21ean:
Harpetarrak.



Abuztuaren 26an:
Los increíbles 2



Abuztuaren 28an:
Jurassic World: el reino caído.



Emanaldi guztiak
22:00etan izango dira,
Orbe Kardinalaren plaza-
zan. Euria badago, eli-
zaren aterpean.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Proba-Leku
Hezpaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ALBOKA


**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS


- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zoareko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Korabiva 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK
**BERRITZE LANAK**
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Erakina Zeharkaina, 36, 3º 48200 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK
**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN**
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 **943 17 65 25**
689 23 31 71

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak **TXIKURIXA** zabalduko dute Torrekua kalean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu,
deitu **688632874** telefonora

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

aTaRa ZARaTa!



Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN
Euskal Birusa Elkarte



**Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!**



Helduentzat: 10€



Umeentzat: 8€